

## 82. EUSKAL SOZIOMETROA (2024ko otsaila) Prensa oharra

### SARRERA

82. Euskal Soziometroa 2024 urteko lehena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak. Landa-lana 2024ko urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Norbere egoeraren eta Euskadiko egoeraren balorazio positiboa

Euskal biztanleriak 10etik 7,0 punturekin balioesten du bere **“egungo egoera pertsonala”**, eta 7,3 punturekin urtebete barru izango duela uste duena. Balorazio hori 1995tik jasotako altuena da.

**“Euskadiren egungo egoeraren balorazioa”** 6,0 puntukoa da, eta dezimal bat handiagoa urtebete barrurako espero dena, 6,1.

**“Espainiaren egoerari”** dagokionez, egungo egoeraren balorazioa 4,8 puntukoa da, eta ez da espero aurten aldatuko denik, urtebete barruko balorazioak puntuazio bera jasotzen baitu.

Euskadiko **arazo nagusiei** dagokienez, gizartearen lehen kezka lan-merkatuarekin lotutako arazoak dira berriz ere, 2021ean hasitako beherazko joerarekin jarraitzen badu ere. Biztanleriaren % 48k aipatu du hiru arazo nagusien artean, 2021ean %61ekoa zen eta ordutik behera egin du etengabe.

Aurrekotik alde handiz datoz osasungintzarekin (% 35) eta etxebizitzarekin (%25) lotutako arazoak, eta ekonomiarekin lotutakoak (%21).

Kopuru apalagotan aipatutako beste arazo batzuk honako hauek dira: delinkuentzia eta segurtasunik eza (% 12), eta zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura, eta laguntzak (% 12), egoera politikoa eta politikariak (% 11) eta hezkuntza (%11).

Iritziak banatuta daude Euskadiko **demokraziaren funtzionamenduaren** balorazioari dagokionez; % 46k balorazio positiboa egin dute (oso edo nahikoa pozik), eta % 51k, berriz, negatiboa. Erdiek baino gehiagok uste dute Euskadiko demokraziak Estatuko gainerako autonomia erkidegoetan baino hobeto funtzionatzen duela (% 52). Euskadiko biztanleria Estatuko gainerako autonomia erkidegoetakoetatik nabarmen bereizten da demokraziak bere autonomia erkidegoan duen funtzionamenduari buruz duen iritzi positiboagatik.

Euskal biztanleriak **konfiantza gehien duen erakundea** unibertsitatea da (% 84k dute konfiantza unibertsitatean), eta haren atzetik daude Eusko Jaurlaritza (% 73), udalak (% 70), Foru Aldundiak (% 69) eta Eusko Legebiltzarra (% 68). Halaber, gehienek konfiantza dute GKEetan (% 57), enpresetan (% 57) eta Europar Batasunean (% 51). Zertxobait gutxiagok sindikatuetan (% 47) eta justizia-auzitegietan (% 46). 10etik 4k baino gutxiagok dute konfiantza Espainiako Gobernuan (% 32), komunikabideetan (% 30), eliza katolikoan (% 25), Diputatuen Kongresuan (% 24), bankuetan (% 23), alderdi politikoetan (% 20) eta, azkenik, Espainiako Erregetzan (% 20).

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### Egonkortasuna jarrera, balorazio eta balio politikoetan

Biztanle gehienek **politikarekiko interes gutxi edo batere interesik ez** dute oraindik ere (% 64), 2010etik interesak goranzko joera erakusten badu ere; momentu hartan % 20k agertzen zuten interes handia edo nahikoa, eta portzentaje hori handitzen joan da egungo % 35eraino.

**Begikotasun politikoei** dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 4,6 puntuko batezbestekoa baitu 0tik 10erako eskalan. Ondoren daude, EHBildu (4,2), PSE-EE (4,2), Elkarrekin Podemos (3,5), PP (1,9), eta, azkenik, Vox (0,9).

Euskadiko hainbat alderdik zerrendaburuak aldatu dituzte Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetarako, eta, beraz, **liderren ezagutza** orain artekoa baino txikiagoa da. Ezagunenak Miren Gorrotxategi (% 43) eta Eneko Andueza (% 38) dira, gaur egun Eusko Legebiltzarrean eserleku bana dutenak. Imanol Pradalesen ezagutza maila, EAJko hautagai berria dena, % 37koa da, eta EH Bilduko Pello Otxandianorena % 34koa; Javier de Andresena % 31, eta Amaia Martinezena % 17koa.

Testuinguru horretan, **balorazioak** ere aldatu egin dira aurreko soziometroekin alderatuta: bostetik gorako puntuazioak lortu dituzten bakarrak Pello Otxandiano (5,3) eta Imanol Pradales (5,0) dira; eta kopuru horretatik apur bat behera geratu dira Miren Gorrotxategi (4,7) eta Eneko Andueza (4,4). Amaia Martinezen (3,5) eta Javier de Andresen (2,8) balorazioak baxuagoak dira.

Herritarren % 44 “soilik euskal herritar” edo “euskal herritar, espainiar baino gehiago” **sentitzen dira**, % 39 “euskal herritar bezain espainiar”, eta soilik % 9 “espainiar euskal herritar baino gehiago” edo “bakarrik espainiar”.

Bestalde, Euskadiko biztanleen % 23 **independentziaren** alde daude, % 33 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 38 aurka daude.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.030 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm\%$  1,8koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2024ko urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 14a